

BAIONA HIRIAK AURKEZTEN DU
ERAKUSKETA

JOSÉPHINE BAKER,
libre eta engaiatua

2025.10.31 > 2026.01.04



ARGIRA SARTU

Joséphine Baker-en bizitza-bidea argiz betea da: dantzatzea eta irri egitea haurtzaro zailari aurre egiteko, ikuskizunaren munduan bere lekua egitea eta « music-hall »aren, kantuaren eta ikuskizunaren ikono bihurtzea; Bigarren Mundu Gerraren erdian Erresistentzian engeiatzea; aurreiritzi eta diskriminazio arrazialen kontra borrokatzea eta hori bere bizitza pribatuan indargune bihurtzea, ohiz kanpoko familia bat eraikiz, mundu anaitsu eta elkartasunaren ispilu dena. Kontinente batetik bestera, Joséphine Baker-en talentuak eta irribarreak atek ireki dituzte, antzokietako eszenak zoriandu dituzte eta gehien behar zuten horiei etengabeko babesa eman diete. Ibilbide paregabe honetara gomitzen zaitu erakusketa honek: ongi etorri emazte aske honen bidean, oraindik ere artista, emazte eta herritar konprometituen belaunaldiak inspiratzen segitzen duen 20. mendeko ikono baten bidean.

ENTRER DANS LA LUMIÈRE

Le chemin de vie de Joséphine Baker est baigné de lumière: danser et sourire pour faire face à une enfance difficile, se faire une place dans le milieu du spectacle et devenir une icône du music-hall, de la chanson et du spectacle, s'engager dans la Résistance au cœur de la Seconde Guerre mondiale, lutter contre les préjugés et discriminations raciales et en faire un atout majeur dans sa vie privée avec la construction d'une famille hors-norme, miroir d'un monde fraternel et solidaire. D'un continent à l'autre, le talent et le sourire de Joséphine Baker ont ouvert des portes, enchanté des scènes de théâtres et apporté un soutien permanent à ceux qui en manquaient le plus. C'est à ce parcours unique que cette exposition vous convie: bienvenus sur le chemin de cette femme libre, icône du 20^{ème} siècle qui continue d'inspirer des générations d'artistes, de femmes et de citoyens engagés.

ENTRAR DENS LA LUTZ

Lo camin de vita de Joséphine Baker qu'es banhat de lutz: dançar e sonriser entà har cara a un temps mainader malaisit, hà's ua plaça dens lo demiei de l'espectacle e vàder ua icòna deu music-hall, de la cançon e de l'espectacle, engatjà's en la Resistència au còr de la Segonda guèrra mondiala, lutar contra los prejuiçats e discriminacions raciaus e hà'n un atot màger dens la soa vita privada dab la construcció d'ua familha hòra-nòrma, miralh d'un monde fraternau e solidari. D'un continent tà l'aute, lo talent e lo sonriser de Joséphine Baker qu'an obèrt pòrtas, mes tanben encantat emponts de teatres e portat un sostien permanent aus qui'n trobavan mei de manca. Qu'es ad aqueth caminament unic qu'aquera mostra ' v'envita: planvienguts suu camin d'aquera hemna liura, icòna deu sègle 20au qui cuntinha d'inspirar generacions d'artistas, de hemnas e de ciutadans engatjats.

Auzapeza eta Herriko Kontseilua - Le Maire et le Conseil municipal - Lo Maire e lo Conselh municipau

Panteoian sartu den seigarren emaztea, Joséphine Baker talentu anitzeko pertsona da, eta Frantziako 20garren mendeko historia markatu du.

Frantziar maitemindua, ikono bihurtzen da, batzuetan lausengatua eta besteetan eztabaidatua.

Prentsaren eta komunikabideen heroi, Paris Match aldizkariaren lehen orrialdeetan agertu zen 1949ko apirillean. Ondoko urteetan eta 1975eko bere heriotzara arte, astekariak hainbat erreportajeren bidez emazte paregabe honen ibilbide aparta berri batetik bestera azaldu zuen. Frantziara heldu zeneko mendeurrenaren eta bere desagerepenaren 50. urteurrenaren ospakizunez, Baiona Hiriak Didam-ek antolatutako erakusketa bat hartuko du, emazte borrokari honen ibilbidea berreskuratuz. Emazte honek etengabe besteengana bideratutako bide bat markatzen ahalegindu zen, berdintasunaren, errespetuaren eta elkarrekin bizitzeko borrokan. Paris Match-ek Panteoira sartu zeneko ospakizunaren harira sortutako argazki-erakusketaren inguruan, proiektu honek Defentsako Zerbitzu Historikoak eta ECPAD-ek eskainitako irudi eta artxibo-dokumentuak aurkezten ditu. 20. mendeko historian murgiltzeko parada. Urte zoroetatik hasi eta 70eko hamarkadaraino, Bigarren Mundu Gerrako atsekabeetatik pasatuz, nortasun gabeko begirada sutsu, sortzaile, alai eta militantearen bidez.

Mutil ederren inguruan egoteak energia ematen dio. Eta beharrezkoa da hori, lau ordu eta berrogeita hamar taulaz osatutako ikuskizun berri hau errepikatzeko! 53 urtekin, Joséphine Baker-en gorputzak 20 urtekoaren malgutasuna mantentzen du eta bere publikoari oraindik ametsak sortzen dizkio. Hauxe dio: "Ez dut gehiago kantatzen nire haurrentzat bakarrik".

© Philippe LE TELLIER / PARIS MATCH



AZAROAREN 5A ASTEAZKENA

SORMEN TAILERRA - EHUN URTE ART DECO

10:30-12:00 > Murgil zaitez Art Déco-aren unibertso finduan! Mugimendu enblematiko horren mendeurrena dela eta, Didam-ek ateak irekitzen dizkizu Art Déco-aren inguruko bisita gidatua eta sormen tailerra egiteko.

Ondare zerbitzua eta Artearen eta Historiaren Hiriarekin lankidetzan.

7 urtetik aurrera.

Doakoa. Izena eman behar da, toki kopuru mugatua.

AZAROAREN 13A OSTEGUNA

IDAZKETA TAILERRA

9:30-12:30 > Laurent Platero-k, Le Bocal, animatua. Ordainpekoa 12€, 10€ senior, 8€ Déclic txartelak.

Doakoa. Izena eman behar da, toki kopuru mugatua.

AZAROAREN 15A LARUNBATA

CHARLESTON TAILERRA

JOSÉPHINE BAKER-EN AZALAN!

11:00-12:00> Urte zoroen izpiritua berriz ezagutu Sylvie Olivier-ek, jazz dantza erakasleak, proposatu Charleston tailer baten bidez.

Deskubritze tailerra, deneri irekia. .

Doakoa. Izena eman behar da, toki kopuru mugatua.

12 urtetik goiti.

BISITA KOMENTATUA

13:00-14:00 > Didam-eko bitartekariarekin.

Doakoa. Izena eman behar da, toki kopuru mugatua.

> EGUBERRI BAIONAN <

ABENDUAREN 5A OSTIRALA

MINTZALDIA

« JOSÉPHINE B., ICÔNE DE JAZZ & DE CŒUR »

18:00-19:00: Jean Yves Roque-ek lehen afrikar amerikarren presentzia erakusten digu Parisen, jazzaren heldzeak eta music-hall-aren gorakadak Joséphine Baker agertokiaren aitzinera bultzatu baino lehen. Artisten eredua baina baita iragarkiena ere, zeren irudia izan da bere nortasuna? Nola bihurtu zen 1920ko hamarkadatik Erresistentziara, izar eta Frantziaren arteko elkar adopzioa baloreen eta humanismoaren ikur?

Doakoa. Izena eman behar da, toki kopuru mugatua.

ABENDUAREN 10A ASTEAZKENA

HATZ TTIAK / 0-3 URTE

NIRE LEHEN CHARLESTON

9:30-10:30 > Erakusketaren aurkikuntza ludikoa eta sentzoriala, Didam-eko bitartekariak animatua. Doakoa. Izena eman behar da, toki kopuru mugatua.



Gehiago jakiteko, gure
didam.bayonne.fr
gunera joan

ABENDUAREN 13A LARUNBATA



SERIOUS GAME

JOSÉPHINE BAKER : ASKATASUNAREN BOZA

11:00-12:00 > Deskubritu modu ludikoan Joséphine Baker-en bizitza eta ibilbidea. Jokalariek enigmak konponduko dituzte iturri historikoen, soinu-banda, argazkiak eta arte plastikoen azterketan oinarriturik ... Nor izanen da misterioko kutxa irekitzeko kodea atzemateko gai izanen dena?

12 urtetik goiti.

Doakoa. Izena eman behar da, toki kopuru mugatua.



BISITA KOMENTATUA

13:00-14:00> Didam-eko bitartekariarekin.

Doakoa. Izena eman behar da, toki kopuru mugatua.



JAZZ PAUSALDIA

SOLARIS TRIO JAZZ

15:30-16:15 eta 16:30-17:15 > Musika parentesia elegantea eta liluragarria.

Doakoa.

ABENDUAREN 17A ASTEAZKENA



EGUBERRIKO SORMEN TAILERRA

10:30-12:00 > Urte zoroetan inspiratutako zoriontxartela egitea.

7 urtetik goiti.

Doakoa. Izena eman behar da, toki kopuru mugatua.

ABENDUAREN 18A OSTEGUNA



IDAZKETA TAILERRA

9:30-12:30 > Laurent Platero-k, Le Bocal, animatua.

Ordainpekoa 12€, 10€ senior, 8€ Déclic txartelak.

Doakoa. Izena eman behar da, toki kopuru mugatua.

ESKOLARRAK, ESKOLAKO ORDUTEGIZ KANPOKOAK, TALDEAK

2025-2026 urteetako taldeei eskaintzen zaizkien bisita gidatu eta autonomoen izen-emate kanpainak hetsiak dira.

Ondoko denboraldiei buruzko eskaera edo proiektu proposamenetarako, otoi, zuzen zaitzteze Didam-eko bitartekaritza taldeari 05 59 46 63 43 telefonora edo posta elektronikoz mediazio helbidera: didam@bayonne.fr



BA OTE DAKIZU?

• INKLUSIOA:

SEAPB Euskal Herriko Haurren eta Helduen Babeserako talde bat Didam-era ongi etorria da Jeanne Lafaix erizain psikiatriko eta bitartekari kulturalak gidatutako askatasunaren gaiari buruzko tailer batera.

• LEHEN HAURTZAROA:

0-3 urtekoak 20ko hamarkadako besta-unibertsoan murgilduko dira, tailer sentsorial batekin, lumak, jazza eta testura distiratsuak nahastuz. Esplorazio librea, sorkuntza artistikoa eta mugimendu-jolasak, Charleston-en erritmoan. Lehen Haurtzaroko Sarea, haurtzainekin eta haurtzaindegiekin lankidetzan.

• KULTURA-ABENTURA:

Hezkuntza Artistiko eta Kultural proiektu honek lurraldeko 12 ikastetxe batzen ditu eraldaketa eta metamorfosi gaien inguruan. Ikasleak Baionako kultur egitura ezberdinetan errezibituek dira, horien artean Didam-en. Ikasgelan eginak diren obren itzultzea 2026ko apirilean. Departamenduko Arte Plastikoa eta Artearen Historiako Pedagogia Aholkulariak eta Hezkuntza Nazionalak koordinatua.

Jainkosa, beti. «Baker-ak» bere betile faltsuak eta music-hall-eko erreginaren diademak jantzi ditu berriz. 1959eko maiatzean berriz itzuli zen agertokira. *J'ai deux amours* eta *La Petite Tonkinoise*, bere lehen arrakastak, berriz kantatu zituen. Bukarean, publikoa zutik, bost minutuz txalotzen aritu zen.

© André LEFEBVRE / PARIS MATCH

Lehen argazkia: Gazteluko patioan, zutik, *La Marseillaise* entzuten, non gerra garaia, abertzaleak erresistenteak gordetzen zituen. Haren dominak eskuratzeko, uniforme militarra jantzi zuen, eremu higatuenak tintaz margotuz.

© Georges MENAGER / PARIS MATCH





BAIONA HIRIAK AURKEZTEN DU
ERAKUSKETA

JOSÉPHINE BAKER,
libre eta engaiatua

2025.10.31 > 2026.01.04

Sartzea doan. Astearteretik igandera 13:00etatik 18:30era irekia
(salbu abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean).

XEHETASUNAK | RENSEIGNEMENTS

BAIONAKO KULTURA ETA ONDAREAREN ZUZENDARITZA

DIRECTION DE LA CULTURE ET DU PATRIMOINE - VILLE DE BAYONNE

05 59 46 63 43 - didam@bayonne.fr

6 QUAI DE LESSEPS
LESSEPS KAIA 6

DIDAM.BAYONNE.FR

Une production photo



casterman



Bayonne*
BAIONA-PAYS BASQUE